



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuren transkripzio zerbitzuak kontratatzeko Baldintza Teknikoen Orria.

Pliego de prescripciones técnicas para la contratación de los servicios de transcripción de las sesiones del Parlamento Vasco.

1. XEDEA

Egin beharreko lana: Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuretan, ohikoetan nahiz berezietan, euskaraz zein gaztelaniaz egindako mintzaldien transkripzioa.

Hala ere, batzordeen bilkuren edo beste legebiltzar-organo bilkuren eta erakunde-ekitaldi batzuen transkripzioa egiteko ere eskatu ahal izango da, beti ere, 48 ordu lehenago eskatuz gero.

2. EGIN BEHARREKO ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

2.1. Entregatzeko formatua. Transkribatu beharreko materiala atzera itzultzea.

Legebiltzarreko administrazioak esleipendunari emango dizkio transkripzio-unitateak (aurrerantzean TUak). Unitate horiek ahots-grabazioko fitxategi digitalizatuak izango dira, 15 minutuko iraupenekoak, MP3 formatudunak.

Esleipendunak posta elektronikoz itzuliko du TU bakoitzaren testua, MS Word formatuan (2000. XP nahiz 2003 bertsioan) transkribatua.

1. OBJETO

El trabajo consiste en la transcripción de las intervenciones orales en euskera y castellano efectuadas en las sesiones plenarias del Parlamento Vasco, tanto ordinarias como extraordinarias.

No obstante, se podrá recabar la transcripción de las sesiones de las comisiones o de otros órganos parlamentarios y actos institucionales, siempre que se anuncie con, al menos, 48 horas de antelación.

2. DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO A REALIZAR

2.1. Formato de la entrega y devolución del material a transcribir

La administración parlamentaria entregará las unidades de transcripción (en adelante, las UT) al adjudicatario, entendiéndose por tales los ficheros digitalizados de grabación de voz de 15 minutos de duración en formato MP3.

El adjudicatario devolverá por correo electrónico el texto de cada UT transcrito en formato MS Word (versiones 2000, XP o 2003, indistintamente).





Legebiltzarreko administrazioak beretzat gordetzen du TUak bidaltzeko eta jasotzeko baldintza teknikoak aldatzeko aukera, eta hala egiten badu bi hilabete lehenago abisatuko dio esleipendunari bere baliabideak egokitu ditzan.

2.2. Entregatzeko epeak

Transkripzioa bilkura-egunean berean eta esleipendunari TUak bilkura amaitu bitarte bidaltzen joango zaizkion heinean entregatu beharko da.

Entregatzeko gehienezko epea esleipendunak bere proposamenean hitz emandakoa izango da.

2.3. Kalitatea

Transkripzioak Legebiltzarreko administrazioak esleipendunari kontratua sinatzean adierazitako aurkezpen-jarraibideei egokitua izan beharko du.

Testu transkribatua berehala hedatzeko beharrezko kalitate eta fideltasun bermekin aurkeztuko da.

2.4. Ordainketa

Ordainketa hilero egingo da osorik edo bere heinean transkribatutako TUak fakturatuz eta behin Legebiltzarrak egindako lanari ontzat eman eta gero. Ontzat eman dela ulertuko da itzulpena entregatu eta ondorengo zazpi egun baliodunetan Legebiltzarrak ez badu horren kontrako adierazpenik egiten.

La administración parlamentaria se reserva la facultad de modificar las condiciones técnicas del envío y recepción de las UT, a cuyo efecto avisará al adjudicatario con dos meses de antelación para la adaptación de sus medios.

2.2. Plazos de entrega

La entrega de la transcripción deberá realizarse en el mismo día de la sesión y a medida que se vayan remitiendo las UT al adjudicatario hasta el levantamiento de la sesión.

El plazo límite de entrega será el comprometido por el adjudicatario en su propuesta.

2.3. Calidad

La transcripción habrá de acomodarse a las pautas de presentación que se le indiquen por parte de la administración parlamentaria al adjudicatario a la firma del contrato.

El texto transcrito se presentará con las garantías de calidad y fidelidad necesarias para su inmediata difusión.

2.4. Pago

El pago se efectuará mensualmente mediante facturación de las UT transcritas (íntegramente o en su parte proporcional) y una vez el Parlamento acepte a conformidad el trabajo realizado. Se entenderá aceptado a conformidad cuando no se produzca declaración en contrario por parte del Parlamento en los siete días hábiles siguientes a la entrega.





TUren bat adostutako epearen barruan entregatzen ez bada, prezioaren %10 kenduko zaio ordainketari, baldin eta egun berean entregatzen bada, eta %20 hurrengo egunean entregatzen bada, horrek, hala ere, kontratua suntsitzea ere ekar dezakeelarik.

Si alguna UT no se entregara en el plazo convenido se minorará el pago en un 10 % del precio, si se entregara en el mismo día, y un 20 % si se entregara en día posterior, sin perjuicio de constituir, en su caso, causa de resolución contractual.

3. AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOA

Proposamen teknikoak zerbitzu ematearen proiektu orokorra jaso beharko du, baita esleipen-irizpideen arabera ebaluatzeko beharrezko datu guztiak ere, eta bereziki:

- Lehiatzailearen curriculum profesionala.
- Antolamendu-egituraren eta zerbitzurako baliabide pertsonal erabilgarrien deskripzioa, taldeko kideak eta beren lanbide-prestakuntza zehaztuz.
- Zerbitzua Legebiltzarreko lanaren beharizanetara egokitzea.
- Zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko baliabideak.
- Beste edozein informazio gehigarri.

3. PROPUESTA TÉCNICA A PRESENTAR

La propuesta técnica deberá contener el proyecto general de prestación del servicio con todos los datos necesarios para la evaluación con arreglo a los criterios de adjudicación, y en particular:

- Currículum profesional del licitador o licitadora.
- Descripción de la estructura organizativa y de los medios personales disponibles para el servicio, con detalle de los componentes del equipo y su cualificación profesional.
- Adaptabilidad del servicio a las necesidades del trabajo parlamentario.
- Medios para el aseguramiento de la calidad del servicio.
- Cualquier otra información adicional.

4. PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

- Gehienezko prezio hau ezartzen da: 67,80 € (BEZik gabe) TU bakoitzeko. Lehiatzaileak TU bakoitzeko prezio-proposamen bat egingo du, BEZik gabe, klausula administratiboen pleguan jasotako proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera.

4. PROPUESTA ECONÓMICA Y OTROS CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FORMULAS

- Se fija un precio máximo de 67,80 € (IVA excluido) por UT. Cada licitador hará una propuesta de precio por UT, excluido el IVA, con arreglo al modelo de proposición económica contenido en el pliego de cláusulas administrativas.





Kontratuan ezarriko den behin betiko prezioa urtero Euskal Herriko KPlren arabera egokituko da.

El precio definitivo que se concrete en el contrato se ajustará anualmente en función del IPC del País Vasco.

- Transkripzioa entregatzeko epearen zehaztapena.

- La determinación del plazo de entrega de la transcripción.

5. BALIOESTEA

Proposamenak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- a) Transkribatutako materiala entregatzeko bizkortasuna: % 50
- b) Zerbitzua Legebiltzarreko lanaren beharrianetara egokitzea: % 25
- c) Transkripzioaren kalitatea bermatzea: % 15
- d) Eskaintzaren prezioa: %10

5. VALORACIÓN

Se valorarán las propuestas según los siguientes criterios:

- a) Rapidez en la entrega del material transcrito: 50 %
- b) Adaptabilidad del servicio a las necesidades del trabajo parlamentario: 25 %
- c) Garantía de calidad de la transcripción: 15 %
- d) Precio de la oferta: 10 %

6.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da formalizatzen denetik hasita, eta kontratua luzatzeko aukera izango da, bi aldeek komenigarritzat joz gero. Luzapenak urtebetekoak izango dira. Hala ere, kontratuaren iraupena, luzapenak barne, ezin da guztira lau urte baino gehiagokoa izan.

6.- DURACIÓN DEL CONTRATO

La duración del contrato será de dos años desde su formalización, y se contempla la posibilidad de prórroga del contrato si así se estima conveniente por ambas partes. Las prórrogas serán anuales. No obstante, la duración total del contrato, incluidas las prórrogas, no podrá exceder de cuatro años.

7. PROBA ALDIA

Kontratua legebiltzar-ondorioetarako hiru hilabete baliadun proba-aldi gisa igarotzean burutuko da, eta hiru hilabete

7. PERIODO DE PRUEBA

La perfección del contrato se condiciona al transcurso de un periodo de prueba de tres meses hábiles a efectos





horietan kontratuko baldintzak betetzen diren egiaztatuko da.

parlamentarios, durante los cuales se verificarán las condiciones contractuales.

Aldi horretan, esleipendunak konpromisoa hartzen du Eusko Legebiltzarrera joateko zerbitzua martxan jartzeko eta beharrezko jarraibideak jasotzeko egin beharreko bilerak egitera.

En dicho periodo, el adjudicatario se compromete a acudir a la sede del Parlamento Vasco para la celebración de las reuniones precisas para la puesta en marcha del servicio y la recepción de las instrucciones necesarias.

Aldi hori iraganik, Legebiltzarreko administrazioak ondorioen txostena aurkeztuko dio Mahaiari. Txostena aldekoa bada, kontratua erabat indarrean egongo da. Bestela, Mahaiak suntsitu egingo du kontratua eta ordura arte egindakoak ordainduko ditu.

Pasado este periodo, la administración parlamentaria elevará a la Mesa un informe de conclusiones. Si éste fuese positivo, se considerará el contrato plenamente en vigor. En caso contrario, la Mesa procederá a su resolución con el abono de las prestaciones realizadas hasta entonces.

8. KONTRATUA SUNTSITZEA

Baldintza administratiboen klausulan adierazitako arrazoiengatik ez ezik, honako hauengatik ere suntsitu ahal izango da kontratua:

a) Ezarritako epea bilkura-aldi berean hiru bider ez betetzea.

b) Legebiltzarraren iritziz, transkripzioak behar den kalitate eta zehaztasunik ez izatea.

c) Proba-aldia amaitzean Legebiltzarreko administrazioak egindako txostena aurkakoa izatea.

8. RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

El contrato podrá ser resuelto, además de por las causas señaladas en el pliego de condiciones administrativas, por las siguientes:

a) El incumplimiento del plazo fijado en tres ocasiones durante un mismo periodo de sesiones.

b) La falta de calidad y fidelidad exigidas, apreciadas por el Parlamento.

c) La finalización del periodo de prueba con informe negativo de la administración parlamentaria.

